



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Imanol Baleztena Elizalde.  
Leire Bazterrika Loiarte.  
Francisco Michelena Celayeta.  
Ezekiel Loiarte Santesteban.  
José María Michelena Erasun.

2016ko maiatzaren 4an, 19:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

### **1. AURREKO BILKUREKO AKTAK ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

### **2. 2015EKO KONTUAK.**

2015eko kontuen espedientea aztertu ondoren, eta kontuen batzorde berezia bezalako funtzioetan, aho batez erabaki da:

1. Aldeko txostena ematea 2015eko kontuei.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

### **3. TAXI LIZENTZIA.**

Gaia mahai gainean geratu da, ordenantza ereduak aztertzeko.

### **4. ZENBAIT ESKARI.**

1. Erabilitako joare parearen erosteko bandoa eman zen. Proposamen bakarra aurkeztu zen, I.B.B.k, 600 eurotan saltzeko. Aho batez erabaki da B. jaunari erostea joareak, Nafarroako Museo Etnografikoari emateko.

2. Malerrekako Gazte Asanbladak aurkeztu zuen idazkia, baratza eta bere inguruari buruz apirilaren 10ean jardunaldia egiteko diru-laguntza eskatuz (apirilaren 4an aurkeztu zen eskaera). Gaia eztabaidatu ondoren, Gazte Asanbladari ondoko hau jakinaraztea erabaki da aho batez:

- Eskaerak garaiz aurkeztu behar dira, behar bezala aztertu ahal izateko.
- Jardunaldian egindako gastua ez da justifikatu. Udala prest dago laguntzeko. Ekarpen bat egingo luke, baina gauzak beste modu batean egiten badira.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

3. E.L.S.ek baimena eskatu zuen, *Txitxillo* parajearen eroritako pago bat aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki da L. jaunari saltzea arbola, 18 eurotan gehi BEZa; guztira 20,16 euro.

Ezekiel Loiartek ez du erabaki honetan parte hartu.

4. Idazkariak irakurri du A.G.A.k aurkeztu duen idatzia, Maestraren etxeke *ekonomika* izorratua dagoela jakinaraziz. Udalaren kontura konpontzea erabaki da aho batez.

5. Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeak baimena eskatu zuen, GR 11 eta GR 12 bideak markatzeko Zubietako eremuan. Baimena ematea erabaki da aho batez.

## **5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016/25 zenbakia, 2016ko martxoaren 16koa, F.J.M.ari lizentzia eman ziona, *Larrañekobordako* garajearen ondoan 80 zentimetroko harrizko pareta eraiki eta zoladura berdintzeko.

- 2016/26 zenbakia, 2016ko martxoaren 16koa, Alkatezaren eginkizunen eskuordetzea erabaki zuena, apirilaren 3tik 8a arte.

- 2016/27 zenbakia, 2016ko martxoaren 16koa, F.S.i lizentzia eman ziona, Zubia Kaleko 7 A zenbakia duen etxebizitzaren ondoan 20 metro karratuko txabola eraikitzeko (4 poligonoko 126 partzela).

- 2016/28 zenbakia, 2016ko martxoaren 18koa, L.M.M.ri agindua eman ziona, *Legarreko bordan* egiten ari zen obrak bertan behera uzteko.

- 2016/29 zenbakia, 2016ko apirilaren 5koa, F.E.ri lizentzia eman ziona, *Erronea etxean* lurreko sua eta tximinia aldatzeko.

- 2016/30 zenbakia, 2016ko apirilaren 5koa, J.L.S.ni lizentzia eman ziona, *Isabeleko borda* inguratzen duen harrizko pareta berregiteko, neurriak mantenduz.

- 2016/31 zenbakia, 2016ko apirilaren 12koa, L.M.M.ri lizentzia eman ziona, harrizko pareta eraikitzeko 1 poligonoko 4 partzelan —*Makilipurdi*—.

- 2016/32 zenbakia, 2016ko apirilaren 13koa, espediente zigortzaileari hasiera eman ziona, L.M.M.ren aurka, obrak egiteagatik beharrezkoa den lizentziarik gabe.

- 2016/33 zenbakia, 2016ko apirilaren 13koa, “BIDEEN KONPONKETA ETA GARBITZEKO LANAK, BASERRIETAN SEINALEAK JARTZEA, INGURUNEA MANTENDU ETA HOBETZEKO LANAK G.E. HARTZEN DUEN LANGILEAREKIN. 2016KO UDABERRIA, UDA ETA UDAZKENEKO HASIERA” izeneko lanak onetsi zituenak diru-laguntza eskatzeko.

- 2016/34 zenbakia, 2016ko apirilaren 22koa, S.Á.zi lizentzia eman ziona, aurreikusitako baino obra gehiago egiteko *Migelkoneko bordako* teilatuan.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

- 2016/35 zenbakia, 2016ko apirilaren 22koa, *Irazabalbera* parajea oihan-  
aprobetxamendua ateratzeko S.Á.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.

- 2016/36 zenbakia, 2016ko apirilaren 22koa, T.G.ri lizentzia eman ziona,  
aurreikusitako baino obra gehiago egiteko *Domintxenea etxearen* ondoan eraikitako  
egurtegia.

- 2016/37 zenbakia, 2016ko apirilaren 22koa, O.A.ri lizentzia eman ziona, teilatu  
babesgarria jartzeko *Juanenea* etxeko sarrerako ateari.

## **6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kantauriko Ur-  
Konfederazioak 2016ko martxoaren 9an emandako Ebazpena, A.M.ri baimena eman  
ziona, harri-lubeta eraikitzeke *Elutsako errekan*; Nafarroako Gobernura bidali diren  
baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —P.S., J.L.L., B.B., J.M.V., M.T. eta F.  
E.nak—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —  
J.H., L.J., M.M.S. eta I.G.ri—; Mendietako Zerbitzuko zuzendariaren 232/2016  
Ebazpena, sutarako egur loteak emateko baldintzak onetsi zituena; Nafarroako  
Gobernuak Udalari eman dion baimena larreak erretzeko; “*Tren Txikito*”ri buruzko  
erakusketa; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali duen esplotazioen erregistroan izandako  
mugimendua —J.J.M. eta I.G.ren altak—.

2. Jarraian, baso-aprobetxamenduko baimenen harira, ikusirik baimen batzuk  
berehala ematen dituela Mendietako Zerbitzuak eta beste batzuk, berriz, denbora asko  
pasa eta gero, Zerbitzuari ondoko hau jakinaraztea erabaki da aho batez: Zubietako  
Udalak eskertzen dio baimenak ematen daukan azkartasuna, baina azkartasun hori  
eskaera guztietan berdina izatea eskatzen du; bestalde, eman diren baimenak Udalari  
berehala jakinaraztea komeni da (emailez adibidez), jakinaren gainean egoteko eta pista  
eta bideen erabilera kontrolatu ahal izateko.

3. Alkateak aipatu du, P.S.ek eta J.M.V.k oihan aprobetxamenduak ateratzeko,  
katedun trakzioko makina ibili dela pistatik gomarik gabe eta oholekin babestu gabe,  
hormigoian kalteak sortuz. Espediente zigortzaileak hasiko dira bien aurka.

4. Aho batez erabaki da seinaleak jartzea pistetan, pisua 28 tonetara mugatuz.

5. Mozketa-plana egitea eskatuko zaio Mendietako Zerbitzuari.

6. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Cederna-Garalurreko garapen teknikari berria hasi da lanean eta  
aurkezpen bilera egin zen Udaletxean.

- Baztan Bidasoa Turismo Elkarteko bilera: “*Tren Txikito*”ri buruzko  
erakusketa eta mapa turistikoa.



## ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- IREKIBAI proiektua. Errekaren zatiketari buruzko parte-hartze prozesua ireki da. Lehengoratzeko lanak egiteko dirua egonen da. Udalak beharrezkoa ikusten du Zubietan erreka bi tokitan lanak egitea: zerrategiaren parean eta kanaleko sarreran. Ur-Konfederazioko baimenak eskatu eta lan horiek egitea proposatuko da.

- PIGRIN izeneko beste parte-hartze prozesua hasi da zaborren gaia jorratzeko.

- Gizarte Zerbitzuko Batzordeko bilera: enplegu babestuko langileak eta monitorea kontratatu behar dira. Lanak aurreikusi behar dira.

### **7. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 20:35ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.